



Arartekoaren 2018R-2315-17 Ebazpena, 2018ko urtarrilaren 29koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen zaio "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroko baja bat indargabetzeko.

Aurrekariak

1. Arartekoak herritar batek aurkeztutako kexa bat izapidetzea onartu zuen; kexa horretan, herritarrak adierazten zuen ez zegoela ados Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-delegatuak "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan bere inskripzioa bajan emateko hartutako erabakiarekin, zehazki, zuzkidura-bizitokia baten esleipena ukatu zuelako.

Bere kexa-idazkian, kexagileak adierazi zuen 2013tik zegoela altan emanda etxebizitza babestuko eskatzaile gisa.

Zentzu horretan, adierazi zuen ez zitzaiola jakinarazi bizitokia hori esleitu zitzaionik eta, horrenbestez, adierazi zuen ez zegoela ados erregistro horretan baja emateko ebazpenean aipatutako arrazoiarekin.

Izan ere, apirilaren 12an, kexaren sustatzaileak gora jotzeko errekurtsio bat aurkeztu zuen Etxebizitzako sailburuordearen aurrean; bertan, adierazi zuen administrazioak bazituela bere telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa eta, beraz, ez zekiela zergatik saila ez zen saiatu berarekin harremanetan jartzen. Egitate hori erakuste aldera, kexagileak bere telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa eman zituen "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan izena emateko inprimakian.

Azaldutako guztia gorabehera, azkenik, errekurtsio hori 2017ko irailaren 7ko ebazpenaren bidez ezetsi zen.

Azkenik, Arartekoari jakinarazi zion diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra zela; halaber, adierazi zuen beldur zela "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroko bajak ondorio negatiboak izango ote zituen bi prestazio horiek jasotzeari dagokionez.

2. Azaldutako gertakariak ikusita, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bidali zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Bere idazkian, Arartekoak kexagilearen kezka helarazi zuen eta txosten bat bidaltzeko eskatu zuen; bertan, Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-delegatuak "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan inskripzioa bajan ematea ebazteko kontuan hartutako arrazoi juridikoak azaldu behar ziren.





Azkenik, Arartekoak prozedura horretan jakinarazpen pertsonal desberdinak burutzeko jarraitutako modua egiaztatzeko eskatu zuen, hain zuzen ere, saiakera desberdinen kopia bana bidaliz.

3. Hasierako lankidetzak-eskaera honi erantzunez, 2017ko urriaren 23an, erakunde honen erregistroan sartu zen sailak igorritako txosten bat; bertan, azaldutako egitateak baieztatu egin ziren eta kexagilea "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan baja emateko erabakia berretsi zen. Izan ere, jotzen zuten, ez onartzean, zuzkidura-bizitokia baten esleipena ukatu zuela.

Era berean, igorritako erantzunean, sailak jakinarazi zuen jakinarazpen pertsonala egiteko bi saiakera egin zirela eta, lortu ez zutenez, erabaki zela ediktu-deia egitea 2017ko otsailaren 17ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean EAO).

Hala eta guztiz ere, sailak zuzkidura-bizitokia esleitzeko ebazpenaren kopia bat erantsi zuen eta Correosen ziurtagiri bat ere bai, non jakinarazpen pertsonala egiteko saiakera bakarraren data eta ordua agertzen ziren. Horrez gain, bertan adierazten zen hori itzuli egin zela etxebizitza horretan kexaren sustatzailea "ezezaguna" zela esan zutelako.

4. Ediktu-deia egin aurreko jakinarazpen pertsonala egiteko saiakera desberdinen inguruko zenbait kontraesan daudenez, Arartekoak beste lankidetzak-eskaera bat egin zuen; horren bidez, berriz ere eskatu zuen jakinarazpen desberdin horiek burutzeko modua argitzeko.

Gainera, sailari ahalbidetu zitzaion nabarmentzeko modukoa zen beste edozein inguruabar jakinaraztea.

5. Bigarren informazio-eskaera horri erantzunez, 2017ko abenduaren 1ean, erakunde honen erregistroan sartu egin zen bigarren erantzun bat; bertan, sailak labur-labur zehaztu zuen soilik egin zela jakinarazpen pertsonala burutzeko saiakera bat.

Zentzu horretan, argudiatu zen, kexagileak eskaeran adierazitako etxebizitzan bera "ezezaguna" zela egiaztatzean, gai horrekin lotutako legeriarekin bat etorritik, EAO n argitaratzea erabaki zela.

6. Hortaz, beharrezko egitate- eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:





Gogoetak

1. Duela hainbat hamarkadatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (25.1. artikuluan), bai 1966ko abenduaren 16ko Ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideen Nazioarteko Ituna (11.1. artikuluan), edo Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2000ko abenduaren 7an onetsitako Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Karta (34.3. artikuluan), iritzi berekoak dira: etxebizitzak eragin handia du gizartean, pertsonen eta familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.
2. Babes publikoko etxebizitza bat legez okupatu ahal izateko, nahitaez eman behar da izena "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan.

Zentzu horretan, ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 13. artikulua Etxebizitza Babestuko eta Zuzkidura-bizitokiko Eskatzaileen Erregistroa sortzea aurreikusten du eta horrek ordeztuko du edo, hala badagokio, jarraipena emango dio aurretik existitzen zen administrazio-erregistroari. Erregistro horren helburua izango da etxebizitza babestuko eskatzaileak ezagutzea; halaber, babes publikoko etxebizitzaren esleipena kudeatzeko eta kontrolatzeko tresna izango da.

Bitartean, araudia garatuta ez dagoenez, "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroa da etxebizitza babestuko eskatzaileen kudeaketa eta kontrola egiteko lana egin behar duena.

3. Izan ere, zenbait betekizun eta betebeharrak bete behar dira "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan alta eman ahal izateko.

Horrela, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren II kapituluak (aurrerantzean 2012ko urriaren 15eko agindua) berenberegiz ezartzen ditu horiek eskuratzeko baldintza orokorrak eta zein izan behar den eskaera ororen eduki zehatza.

Gure kasuan interesatzen zaigunari dagokionez, aipatutako agindu horren IV. kapituluak aurreikusten ditu inskribatutako demanden baja emateko kausak.

Zehazki, 18.h) artikulua, erregistroko inskripzioa bajaran emateko kausen artean, hauxe ezartzen du:

Eskatutako araubidean bizikidetzaren unitatearen bizitegi-premien arabeko etxebizitza baten esleipenari uko egitean (...)





4. Horrez gain, azaldutakoa bezalako kasuetan, non sailak jotzen duen babes publikoko etxebizitza bat ukatu dela, erregistroan baja emateko neurria hartzeaz gain, 19. artikuluaen bat etorriz, antzintasuna galtzen da:

2.- Halaber, ondoren zehaztutako epe hauetan inskribatzeko debekua sortuko da:

b) Bi urtez, etxebizitza baten esleipenari uko egiten bazaio(...)

Hala, aldi-baterako debeku hori murriztu egin da ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 13.2. artikuluaen arabera:

(...)Etxebizitza baten esleipendunak uko egiten badio esleitutako etxebizitzari, lege hau garatzeko araudian salbuetsita ez dagoen arrazoiren batengatik, baja emango zaio erregistroan eta ezin izango du berriz ere izena eman uko egiten duenetik urtebete igaro arte.

Esleipen-ebazpen bati ez erantzuteak dakartzan ondorio larriak kontuan hartuta, beste edozein gogoeta egin aurretik, Arartekoak uste du Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ahalegin gehiago egin beharko lituzkeela babes publikoko etxebizitza baten edo zuzkidura-bizitoki baten esleipendunaren berriazko borondate-deklarazio bat eskuratzeko.

5. Are gehiago, "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan baja emateak kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzea bezain ondorio larriak eragin ditzake.

Zentzu horretan, Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 5/2010 Dekretuaren 5.1.c) artikulua etxebizitzarako prestazio osagarria onartzeko betekizun gisa ezartzen du honakoa:

"Etxebizitza alokatzeko eskatzaile gisa erregistro batean egotea edo egoteko eskatu izana Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Etxebide zerbitzuan⁴."

Hala eta guztiz ere, Lanbideek jo izan du babes publikoko etxebizitza baten esleipena ukatzea inplizituki sartzen dela Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 19.1 b) artikuluan eta Diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 12. artikuluan jasotako betebeharrean, hain zuzen ere, hauxe jasotzen duena: *"Titularrari edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan"*.

⁴ Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, azaroaren 26ko 25/2016 Dekretua onetsi ostean, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (EHAA 226. zk., 2016ko azaroaren 28koa).



Horregatik, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungitzen ditu kasu zehatz hauetan: prestazioak jasotzen dituen bizikidetzta-unitateak babes publikoko etxebizitza baten esleipena ukatzen duenean.

Baina Arartekoa ez dator bat interpretazio horrekin. Horregatik, hain zuzen ere, bere iritzia eman du txosten honetan: *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017*⁵. Hala, txosten hori amaitzeko, gomendio bat eman zitzaion Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, zehazki, gomendatu zitzaion, babes publikoko etxebizitza bat ukatzean, Lanbidek ukapena justifikatzeko arrazoirik dagoen balioztatze eta soilik hala bada iraungi dezan etxebizitzarako prestazio osagarria eta ez diru-sarrerak bermatzeko errenta.

Gauzak horrela, Arartekoari gustatuko litzaioke jasotzea interesdunarentzat ondorio larriak eragiten dituela babes publikoko etxebizitza bat eskaintzen zaiola ez jakitea. Izan ere, sailarentzat, babes publikoko etxebizitzaren eskaintzari ez erantzutea eta hori ukatzea gauza bera dira.

6. Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak hauxe jo izan du: *"Ezinbestekoa da esleipen bati berariaz uko egiteko egintza eta esleipena epe batean ez onartzeko agintza (isilbidezko ukapena) parekatzea, etxebizitzak luzaroan esleitu gabe eta, hortaz, hutsik egotea saihestu nahi bada. Beraz, berariazko ukoak baja ekartzen badu, berariazko onarpenik ezak edo isilbidezko ukapenak, agerikoa denez, 'zigor' bera eduki behar du."*

Aurretik azaldutakoa ikusita, egokia ematen du jotzea sailak ahaleginak egin beharko lituzkeela esleipendunaren borondatea ezagutze aldera, "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan inskripzioa bajaran eman aurretik.

7. Aurretik azaldutako guztiagatik, Arartekoak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari eskatu zion zuzkidura-bizitokia esleitzeko ebazpenaren jakinarazpen pertsonala burutzeko saiakera nola egin zen justifikatzeko, baita bermeak betetze aldera burututako jarduketak ere, hain zuzen ere, ahalik eta neurri handienean ziurtatzeko kexaren sustatzaileak jakinarazpena jasotzen zuela.

Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak (aurrerantzean 39/2015 Legea) administrazioa behartzen du interesdunei jakinaraztera bere eskubide eta interesak ukitzen dituzten

⁵ **Ararteko.** Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017. 5.3.3.2. atala. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/O_4199_3.pdf



administrazio-egintzak eta, horrez gain, egintzen eraginkortasuna jakinarazpen hori egitearen menpe uzten du (39. eta 40. artikulua).

Laburbilduz, jakinarazpen ororen helburu nagusia da egintzaren edukia interesdunari hel dakion; hala, betiere bermatu behar da ziurgabetasunik ez dagoela jarduteko aukerei dagokienez eta formalitate guztiak xede horren zerbitzura daudela.

Zentzu horretan, 39/2015 Legearen 44. artikulua ezartzen du, prozedura batean interesdunak ezezagunak direnean, jakinarazpenaren lekua alde batera uztea edo, hori saiatu ostean, egin ezin bada, jakinarazpena EAOn iragarki bat jarriz egingo dela.

Kasu honetan, sailak, behin jakinarazpen pertsonala egiten saiatu ostean, ediktu-deiaren formula baliatu zuen. Hala eta guztiz ere, espedientean agertzen zen kexagilearen informazio pertsonala alderatu zuen.

Hain zuzen ere, sailak bere jarduketa justifikatu zuen Arartekoaren aurrean eta hauxe adierazi zuen:

"El domicilio que en su día indicó (la reclamante) ya no era su domicilio y si en dicho domicilio (la promotora de la queja) era desconocida, por más que el empleado de Correos hubiera acudido al mismo dos veces o más el resultado hubiera sido el mismo."

Azaldutakoa gorabehera, Arartekoak uste du, kasu honetan, sailak diligentsia handiagoarekin jardun behar zuela kexagilearen helbidea zein zen jakiteko, zehazki, jarraian azalduko diren arrazoiengatik.

8. Arartekoak aukera izan du bere iritzia emateko jakinarazpenetan bermeak eskatzeari buruz, zehazki, 2015eko irailaren 17ko 2014R-1276-14 Gomendioan⁶.

Orduan ere azaldu egin zen ediktu jakinarazpenak lege fikzio izaera duela, jakinarazpen errealeko izaera baino gehiago, jurisprudentziak etengabe azpimarratu duena. Horrek, ediktu jakinarazpena egin aurretik administrazioak jakinarazpena jaso behar duen pertsona aurkitzeko bere esku dauden arrazoizko aukera guztiak agortzeko beharra nabarmendu du.

Konstituzio Auzitegiak hauxe adierazi du ediktu-jakinarazpenari dagokionez: *"constituye un remedio último de carácter supletorio y excepcional, que requiere el agotamiento previo de las modalidades aptas para asegurar en el mayor grado*

⁶ **Ararteko.** Arartekoaren 2014R-1276-14 Ebazpena, 2015eko irailaren 17koa. Horren bidez, Donostiako Udalarik gomendatzen zaio ibilgailu bat kentzeko egintza eta desegiteko baimena baliogabe ditzan, eta ofizioz has dezan ondare-erantzukizuneko prozedura, interesdunaren ibilgailua desegiteagatik kalte-ordaina ordaindu behar zaion erabakitzeke. Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3776_3.pdf

posible la recepción de la notificación por el destinatario de la misma, a cuyo fin deben extremarse las gestiones en averiguación del paradero de sus destinatarios, por los medios normales, de manera que la decisión de notificación mediante edictos debe fundarse en criterios de razonabilidad que conduzcan a la certeza, o al menos a una convicción razonable, de la inutilidad de los medios normales de citación” (Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 25eko Epaia, zuzenbideko bigarren oinarria).

Horrenbestez, nahitaez aipatu behar da 2012ko azaroaren 29ko Auzitegi Gorenaren Epaia (1580/2010 Epaia), xehetasunez azaltzen duena Konstituzio Auzitegiaren doktrina eta horren inguruko Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia bera (4. Oinarri Juridikoa).

Auzitegiak haxe adierazi du epai horretan: *“que, al objeto de determinar si debe entenderse que el acto administrativo o resolución notificada llegó o debió llegar a conocimiento tempestivo del interesado, los elementos que, con carácter general deben ponderarse, son dos. En primer lugar, el grado de cumplimiento por la Administración de las formalidades establecidas en la norma en materia de notificaciones, en la medida en que tales formalidades van únicamente dirigidas a garantizar que el acto llegue efectivamente a conocimiento de su destinatario. Y, en segundo lugar, las circunstancias particulares concurrentes en cada caso”*; horien artean nabarmentzekoak dira: *“el grado de diligencia demostrada tanto por el interesado como por la Administración”* eta *“el conocimiento que, no obstante el incumplimiento en su notificación de todas o algunas de las formalidades previstas en la norma, el interesado haya podido tener del acto o resolución por cualesquiera medios”*.

Laburbilduz, ediktu-argitalpena azkenengo aukera izan behar da, administrazioak eska daitekeen gutxieneko diligentzia erakutsi duenean helbidea zein den jakiteko. Beraz, ediktu-deia azkenengo konponbide bat da, osagarria eta ez-ohikoa.

Era berean, epaian fede oneko printzipioa aipatzen da: *“obliga a la Administración a que, aún cuando los interesados no hayan actuado con toda la diligencia debida en la comunicación del domicilio (bien porque no designaron un domicilio a efectos de notificaciones, bien porque los intentos de notificación en el indicado han sido infructuosos), antes de acudir a la notificación edictal o mediante comparecencia, intente la notificación en el domicilio idóneo, bien porque éste consta en el mismo expediente (...) o bien porque su localización resulta extraordinariamente sencilla”*

Eska daitekeen diligentziari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak goiz adierazi zuen hau administrazioari dagokionez: *“no tiene obligación de llevar a cabo largas, arduas y complejas indagaciones ajenas a su función.”* (Konstituzio Auzitegiaren urriaren 29ko 133/1986 eta azaroaren 27ko 188/1987 Epaiak).



Hala ere, Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 13ko 65/2000 Epaiak eskatzailea babestu zuen; izan ere, epai horrek jotzen zuen administrazioak kexagilearen helbidea ezagutu ahal zuela, espedientean telefono-zenbakia agertzen baitzen.

Hain zuzen ere, auzitegiak ondorio hau atera zuen: *“No concurría, sin embargo, el presupuesto necesario para acudir a esta modalidad de emplazamiento, cual es, como se ha señalado, la convicción razonable o la certeza del hecho que le sirve de factor desencadenante, esto es, no ser localizable la demandada”*. **Auzitegiak erabilitako argudioa egintza honetan oinarritzen da:** *“Basta considerar que, de haberse efectuado el referido examen con la atención y diligencia exigible, se hubiera podido comprobar que en una de las facturas expedidas a nombre de la ahora recurrente en amparo como documentación se adjuntaban a la demanda figuraba manuscrito un número de teléfono, que no podía ser otro lógicamente, como advierte el Ministerio Fiscal que el de la demandante de amparo.”*

9. Azkenik, egia da 2012ko urriaren 15eko aginduaren 17. artikulua ezartzen duela etxebizitza-eskatzaileek eskaeran emandako datuetan egondako edozein aldaketa jakinarazi beharra dutela. Hala ere, ezin da alde batera utzi, inskripzio-eskaeran bertan, aukera ematen dela, jakinarazpenak jasotzeko helbide bat emateaz gain, harremanetarako zenbakia eta helbide elektronikoa adierazteko.
10. Arartekoaren aburuz, sailak kexaren sustatzailearen helbidea ezagutu zezakeen ediktu-deia egin aurretik, hain zuzen ere, espedientera joz. Bertan, jakinarazpenak jasotzeko helbidea adierazteaz gain, kexagileak bestelako datu batzuk eman zituen, besteak beste, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa.

Laburbilduz, espedientean dagoen dokumentazioa ikusita, ez da jaso aipamenik posta elektronikorik bidali ote zen edo saila kexagilearekin telefonoz hitz egiten saiatu ote zen, hain zuzen ere, ediktu-deia EAOn argitaratu aurretik.

Alderdi horri dagokionez, Arartekoak badaki sailak, ohiko jakinarazpenak postaz egiteaz gain, askotan, jarduketa osatzeko, informazioa bidaltzen duela posta elektronikoz (eskatzaileak adierazitako eragin-eremuko etxebizitzaren promozioei buruzko informazioa; inskripzioaren bi urteko indarraldiaren amaierarekin eta hori berritzeko behararekin lotutako ohartarazpenak...).

Azaldutako guztiagatik, kexagileari “Etxebide” Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan bajaran emateak eragiten dizkion ondorio larriak kontuan hartuta, Arartekoak uste du diligenza handiagoa eskatu ahal zitzaiola Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari helbidearen egiaztapenean eta geroko jakinarazpen pertsonala egitean.

Arartekoak berriz ere azpimarratu du eskaeran bertan telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa agertzen zirela eta horrek interesduna aurkitzea errazten duela. Gainera, sailak ez du ahalegin handirik egin behar, ezta bere eginkizunarekin zer ikusirik ez duen ahalegin konplexurik ere.





Aurretik aipatutako jurisprudentzia-doktrina eta egindako gogoetak ikusita, Arartekoak uste du zuzkidura-bizitokiaren eskaintza-egintzaren jakinarazpena ez zela behar bezala burutu.

Horren ondorioz, Arartekoaren aburuz, kexagileak etxebizitza ukatu egin zuela jotzeko beharrezko egitatezko oinarria ez zen eman eta, hortaz, ez litzateke bidezkoa izango "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan bajaran ematea.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau eman nahi dugu:

GOMENDIOA

Adierazitakoa aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak kexagilearen "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroko inskripzioa bajaran emateko erabakia indargabetzeko.

Horrenbestez, gainerako betekizunak betetzekotan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak kexaren sustatzailearen "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroko inskripzio-eskaeraren iraunkortasuna aitortzeko eta bere antzinasuna mantentzeko.

